

BORTZIRIETAKO UDALEKU IREKIAK ANTOLATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA

-1. GUTUN-AZALA IREKITZEA (ADMINISTRATIO AGIRIAK)-

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2024-12-16
- **ORDUA:** 16:00
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Bortziriako udaleku irekiak antolatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua.
- **PROZEDURA:** Irekia.

BERTARATUAK:

- **LEHENDAKARIA:** Leire Mitxelena Gamio, Bortziriako Euskara Mankomunitateko lehendakaria.
- **1. MAHAIKIDEA:** Patri Arburua Etxeberria, Bortziriako Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria.
- **2. MAHAIKIDEA:** Uxo Gamio Equioz, Bortziriako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko gizarte hezitzailea.
- **IDAZKARIA:** Nagore Madariaga Iriarte, Bortziriako Euskara Mankomunitateko idazkaria.

Arantzan, 2024ko urtarrilaren 16an, arratsaldeko 16:00etan Arantzako Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, kontratazio mahaia batu da, 2024ko azaroaren 7an egindako Batzorde Erabakitzailearen akordio bidez onartutako plegu arautzailean xedaturiko "Bortziriako udaleku irekiak antolatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua" lizitazioaren izapideekin jarraitzeko.

Jarraiki, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (hemendik aitzin KPFL) 51.1. eta 96. artikuluetan xedaturikoaren arabera, hemen adierazitako lizitazaileek aurkezturiko 1. Gutun-azala ireki da:

ENPRESA IZENA:	IFK ZENBAKIA:
DINDAIA FUNDAZIOA	G31831050

Enpresak aurkezturiko dokumentazioa zuzena dela ikusi da. Beraz, jarraian 2. gutun-azala irekitzea adostu da.

Aztergai gehiagorik gabe, bilkura 16:15ean amaitu da, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean. Horri buruzko akta hau idatzi da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako akta hau sinatzen dugu.

Arantzan, 2024ko abenduaren 16an.

LEHENDAKARIA,	1. MAHAIKIDEA,	2. MAHAIKIDEA,	IDAZKARIA,
Leire Mitxelena Gamio	Patri Arburua Etxeberria	Uxo Gamio Equioz	Nagore Madariaga Iriarte